


GELA URDINA

EL SALÓN AZUL

LUIS COLOMA



LUIS COLOMA

GELA URDINA

(Istorio zoragarria)

EL SALÓN AZUL

(Historia Maravillosa)

LUIS COLOMA

ZARAUZKO UDALA

SANZ ENEA LIBURUTEGIA

LUIS COLOMA. Espainiako Jerez de la Fronteran jaio zen 1851ko urtarrilaren 9an eta Madrilen hil zen 1915eko ekainaren 10ean. Itsas Prestatze Eskolan abiatu zituen ikasketak (1863) eta, ondoren, Sevillan egin zituen Zuzenbidekoak. Madrilera aldatutakoan, maiz joaten hasi zen solasaldi dotoretara; haietan bildutako osagaiak baliagarriak izan zitzaizkion bere literatur lanean. Ez zuen inoiz abokatu-lanik egin. Madrilgo bi egunkaritan kolaboratzailea izan zen, eta baita ere monarkia borboitarren berrezarkuntzaren propagandista. Gertakari larri batek (garbitzen ari zen errebolberrak tiro egin eta bularrean zauri larria eragin ziola esan ohi da, baina liskar baten ondorioa izan zen berez) jesuita egitera bultzatu zuen; horrela, Frantziako Landesetako Poyanne apaizetxean sartu zen 1873an, eta urtebete geroago abadetu zuten. Ez zuen, hala ere, kazetaritza alde batera utzi: liburuekin egin zuen modura, kazetaritzalaneak, ondo pasatzeaz gain, irakurleei ikasgaiak emateko balio baitzioten. Lecturas recreativas (1887) lanaren kostunbrismotik gizarte-satirara igaro zen Pequeñeces (1891) obrarekin. Eleberri honek zalaparta sortu zuen; bizioz eta ahulezia lotsagarritz betetako mundua deskribatzen baitzuen, kritika pertsonaltzat hartu zuten. Idazlea gogaitarazi zuten iritzi eta interpretazio desagokiak argitaratu zituen El Heraldo de Madrid egunkariak hamabost egunetan. Beste zenbait lan: Retratos de antaño (1893), Boy (1896), La reina mártir (1898), Jeromín (1902), El marqués de Mora (1903). Interesgarriak dira halaber Recuerdos de Fernán Caballero (1910), Coloma gaztea zelarik ezagutu zuen emakume idazle helduari buruzko oroitzapenak, haren antzera idazten zuen-eta hasiera batean.

Gela urdinaren istorioa Zarauzko gertakaririk liluragarrienetakoa da. Narros jauregian gertatutakoa belaunaldiz belaunaldi pasa da, eta arima erratuek eta gau erdian entzuten omen diren hotsek herriaren imajinario kolektiboaren parte izatera pasa dira.

Luis Coloma jaunak gertakari honen berri ematen digu, baina protagonistetako bat bere lagun mina izanik, (...eta oso laguna nuen adiskide baten etxean...), ez du leku eta pertsonen izen zehatzik ematen, nahiz eta istorioan zehar ematen dituen datu eta aztarnek zertaz ari den asmatzea ahalbidetzen duten, neurri batean.

Hona hemen, beraz, argibide batzuk:

- Z** : Zarautz

- P** eta X** : Jose Antonio eta Francisco Javier Azlor de Aragón y Hurtado de Zaldívar anaiak.

- Humailarria: Mollarri.

Beste erreferentzi batzuk ezin izan ditugu argitu (L**).



GELA URDINA

(ISTORIO ZORAGARRIA)

Che pavoire!...

I



onostia eta Getaria artean Kantauri itsasoak sortzen duen bihurgunean bada herri txiki bixi bat, erdi nekazaria, erdi arrantzalea. Burua etzaten du mendi-hegalean, eta oinak hondartzaraino zabaltzen ditu, itsasoak garbi diezazkion.

Modak aztoratu zuen herri gipuzkoar zintzo hau duela urte asko, eta harrezkero, nekazaritza-lanabesak, arrau-nak eta sagarren zein itsaskien usainak alde batera utzi gabe, smokinga eta gorbata zuria jantzitako Madrilgo *huppée* jendartea hartzen du etxetxo polit eta txalet dotoreetan. Euskal nekazariari, nabarmenduko zuen goreneko ukitua falta zitzaion, eta uda garaian etorri ohi den gortearen hurbiltasunak eman dio hori: nazioarteko herrialdeek bidaltzen dizkiguten Metternichs gutxi-asko txiki guztiak bertaratzen dira, eta habia egiten dute hemen enbaxadoreek, eta bainuak hartzen dituzte handiki boteretsuek, eta edonon aurkitzen dira emakumezko idazkari ilehoriak bizi-

kletaz ibiltzen, eta baita irakasle agregatu lirainak ere, hiruki isoszelearen bi alde berdinarik osatzen euren kanaberez.

189*. urteko abuztuaren hurrengo aristokratiko eta nekazaria, marinela bezain kantzilerra, Olinpoko jainko-jainkosa nobleekin beteta zegoen, *grand complet*. Baziren maila apalagoko jainkoak ere, Olinpora igotzen ez diren horietakoak, Titanak bezalakoak, garaierarik ez izanagatik ere dena inbaditzen dutenak, nola eta nondik datozen igartzen ez zaienak, eta zalapartaka ibiltzen dira, dena aztoratzen eta nahasten, eta distiratsuenak ez izan arren, asaldagarrienak dira batzuetan. Ugariak dira, beraz, dantzaldiak, jaiak eta solasaldiak, segidan ekartzen dituztenak zurrumurruak, lehiak, istorioak eta marmarrak, eta inguru horretan erori nintzen, gizagaixo hilkorra ni, abuztuaren 23an, gaua oso aurreratua zela. Premiazko kontu batzuek ninderamaten, eta oso laguna nuen adiskide baten etxean lo egitea zen nire asmoa, biharamunean, goizean goiz, hurrengo dotore honetan udaldia igarotzen zuen beste lagun batekin batera Debara eta Bilbora joateko.

Garai hartan ez zegoen gaur egungo trenik, eta parrokiako erlojua hamarrak ematen ari zen, astiro, bertatik hurbil, lagunaren jauregi zaharkituaren aurrean gelditu zenean nire gurdia. Antzinako jauretxe hark erakusten zuen sarrera eta itxura baino gauza tristeagorik ez zegoen. Irudi artistiko eta ilunagatik, gainera, opera erromantikoaren dekorazioa gogorazten zuen... Adaburu sendozko zuhaitz hostotsu ehun urteko osaturik lorategi erdizirkular handia, eliza-puska beltzak itzaleztatua, nolabait; eserleku traketsak, urmael bat eta harrizko gurutze huntzez estalia, haren oinean ematen baitzuen Aliceren abesti errukarriak oihartzun egiten zuela:

Mira il cielo che t'attende,

eta Robertoren hitz erdiragarriak ere bai:

¡Ah, pietá, pietá, di me!...

Atzeko laiotzean dago jauregia, higitutako silarriekin, burdineria astuneko balkoiak, handikien lehendabiziko etxeetan bezala plafoiak ageri dituen armari itzela, mendeak pasatuta ere okertzen edo suntsitzen ez ziren punta zorrozdun dorretxoak, eta azkenik, koadroaren hondoa bailitzan, itsaso zakar eta dirdaitsua, zabal Matxixakoraino, erdi irekitako uhate baten gisako haitza ortzi-muga ixten bezala... Atari ilun eta ikaragarria igaro ondoren, eta gero duketza koroa sendoz apaindutako ate bikoia, zeharo bestelakoa du dekorazioa... Marmolezko barla alai eta tokitsua, Sevillako ezagunenetakoen parekoa; ilaran jarritako saloiak, errege-harrerak gogorarazten dituztenak; koadro garestiak, altzari zoragarriak, aitona-amona ospetsuen erretratuak; zerbitzari isil eta zuzenak, bizkorrak baina presarik gabeak, zuhurrak izanagatik ere egokiak; iraganeko handi-mandien luxu osoa, beraz, neurrikoa, serioa eta aberatsa, baina gaurkoen erosotasun sibaritarekin.

Inork ez ninduen espero, Donostiatik irteteko izan nuen presa zela eta, ezin izan bainuen inor ohartarazi, eta ezustean harrapatu nituen etxe hartako jaun-andreak, *chaise-longue* eserlekuan etzanda emakumea, gaixorik zegoelako, eta atzerriko egunkarietan arreta jarrita jauna, epaiketa istilutsu baten kontuak haizatzen zituztelako. Jaun-andre ospetsu horien bi seme-alaba txikienak ere han zeuden, eta nagusienak, P** eta X**, Alemaniako enbaxadoreak gau hartan eskaintzen zuen jaiari ziren, eta horixe izan zen, beharbada, nire abentura bel-durgarriaren arrazoia eta hasiera.

Solasaldi alai eta atseginak ia hamabiak arte iraun zuen, eta ordu horretan erretiratu nintzen niretzat atondu zu-

ten gelara, falta ziren bi gazteen zain egoteko prest; nik goiz jai-ki behar eta, haiek horretarako ohiturarik ez, ezingo baintuen ikusi bestela enbarazurik egin gabe. Asko maite nituen eta jakin-mina sortzen zidaten, neureak balira bezala. Hori eragiten zuen gaztetasunak helduaroan, zorioneko haurtzarotik itxaropenez betetako gaztaro ezin hobera daraman moldaera zail eta misteriotsua urratsez urrats bizi eta jarraitu duenean.

Ez zen, artean, Gipuzkoako txoko honetara argindarraren distira modernorik iritsi, eta brontzezko lanpara itzel baten azpian erregutu nituen hurrengo eguneko otoitzak, nire puskak txukun ipini ondoren logelan. Karratu handia zen, sabai garaiarekin. Aldamenean egongela are handiago bat zuen, eta oharkabean zeharkatu nuen nik hura, horma urdinek gordetzen zuten ezusteko beldurgarriaren susmorik gabe. Gela urdin horretara ematen zuen ate ederra zuen nire logelak, zabal-zabalik orduan; hondoan parkera ematen zuen balkoia zegoen, kristalak irekita eta leiho-saretak erdi itxita, gaugiroari bide egiteko. Balkoiaren parez pare, erdialdean, XVII. mendeko ohe polit bat neukan, oso altua, erremate zorrotz, egur aberatsen apaingarri bitxi eta urre koloreko brontzeekin. Ohearen eskuin aldean, marmol beltzezko tximinia eta iheserako atetxo bat, P**-ren gelara ematen zuena, eta horrek, era berean, X** anaiaren gelara, aurrekoaren berdina zen beste atetxo baten bitartez. Errezelak eta aulkiak *reps* oihal zetazkoak ziren, oso argiak, lihazki eta belus-zerrenda zabal moreekin, eta balkoiaren eta ohearen artean idazmahaia zegoen, eta gainean lanpara bat piztuta. Haren argipean ari nintzen ni San Bartolomeren matutiak errezatzen, abuztuaren 24ari dagozkionak, zoritxarreko gertaera historikoaren urteurrena, nire begien aurrean agertuko zen ikuskari beldurgarriarekin lotuko zena misteriotsuki.

Jaitik berandu zetozen etxean falta ziren gazteak, eta otoitzak amaitutakoan gela urdin misteriotsua arakatzea otu

zitzaidan, inoiz ahaztuko ez nuena, urte askotan biziz gero ere. Ez zegoen han jauregiko beste geletako luxurik. Tapizeria urdinak histua zirudien, eta altzarietako eta adarkadura zurizko errezelen urdin kolorea ere maiztuta eta zimel ageri zen. Gela hartako atea korridore zabal batera ematen zuen, jauregi osoari bira ematen zion hartara, eta beste bi ate handi aurrez aurre: batek nire gelara ematen zuen, eta besteak, jauregi hartan egondako aldietan, Isabel II.a erreginak erabilitako geletara. Itxita zeuden orduan, nahiz eta prestatuta egon beti, bisitari ospetsua noiz etorriko zain. Hormetan zenbait koadro eta antzinako erretratu ikus zitezkeen zintzilik, eta haietatik atentzioa eman zidaten hiruk. Lehenengoa oso handia zen, italiarra, patinak ilundutakoa: Jacob-en loa irudikatzen zuen, eta aurrealdean Aitalehena ageri zen, zurbila eta ilehoria, ederra bezain mozkotea; antezko txalekoa zeraman gerrian estututa, brodatutako galtzoinak eta oinak agerian, eta lumazko lastaira batean bezala lo zegoen harkaitz soilduaren gainean. Hondoan eskailera mistikoa ikusten nuen, han zebiltzan aingerutxo po-txoloak gora eta behera, eta, azkeneko mailan, Betiereko Aita txiki batek haurtxo zerutiarren igo-jaitsierak zaintzen zituela zirudien, eskua altxatuta eta atzamarra tinko, ordena eta isiltasuna ezartze aldera.

Erreginaren gelen eskuinean eta ezkerrean, beraz nire gelaren parez pare, bi erretratu bikain zeuden. Eskuinekoak itxura aparta zeukan, antzinako estilokoa; XVI. mendeko zaldun bat ageri zuen, ilehoria eta itxura goibel eta ezatseginarekin; urrez brodatutako elastikoa zeraman, goleta xumea eta Carlos V.aren dominadun urrezko idunekoa lepotik zintzilik, bular gainera. Ezkerrekoari, ez dakit zergatik, tankera oso txarra hartu nion. Emakume zahar eta itsusia zen, sugea bezalako aho arrailduarekin; Santo Domingoko mojen jantziak zermatzen, eta txahal-laruzko besaulki handi batean zegoen eserita,

arma dominikarrak eta plafoi asko zituen noblezia-ekutuarekin, koadroaren eskuin angeluan distiran ikus zitekeena. Luma zeukan eskuan, eta paper eta liburuak aldamenean, mahai gainean. Berriro diot, ikusi orduko, begitan hartu nuen emakume hura.

Isiltasuna zen nagusi jauregi osoan, eta lorategiko hiru iturritxoek isuri kadentziatsua besterik ez zen entzuten gela urdinean. Balkoira irten nintzen une batean, atariko ezkututik ezkerretara zegoen lehenera; parkearen zabalera osoan iluntasunik beltzena zen itsugarri, eta jauregiaren ate irekitik sartzen zen argi zirristak eteten zuen soilik. Urrunean, bi faroltxok argizatzen zuten hesiaren sarrera. Haize epelak itsasoko lurrin garratzak zekartzen. Honek bizkarrean durundatzen zuen monotoniazko erritmoarekin, eta izarrez betetako zeruak, handitasun ilunarengatik, Sevillako Dolorosas-en belus beltzezko mantuak ekartzen zizkidan gogora. Denbora eman nuen balkoiaren kontra bermatuta, gau zoragarri hartaz gozatzen: nire bidaiaren arrazoiak pentsatu nuen, kezkatu, garai hartan gertatutako hilketa famatu batekin lotutakoaz, mundu osoan oihartzun ikaragarria izandakoaz. Beldurak, zalantzak, itxaropenak, larrialdiak; nazioak eta gizonak goratzen edo hondoratzen dituen Jainkoaren ezusteko bideak ikuskatzeko, kristau-gogoan sortzen ziren sentimendu horiek guztiek bahituta nindukaten.

Karroza baten soinua entzun zen urrutian, eta haren bi faroltxoak azaldu ziren Bizkonde izenez ezagutzen zuten kaletik barrena. Gutxira, gelditu egin zen jauregiaren ate aurrean, eta bi anaiak jaitsi ziren, dotore, dantza-jantziekin, Alemaniako Enbaxadako jaiko xingola pikart zintzarridunak zintzilik zituztela oraindik *smokingetan*. Nire pentsamendu beltzek bi irudi sinpatiko haiekin sortzen zuten kontrasteak are gehiago goibeldu zidan bihotza. Gaztaroaren pertsonifikazioak ziren, gupida maitekorra eragiten duen gaztaro hori, nik ames-

ten nituen hondamendien eta lazgarrikerien artetik pasatzen, lasai eta irribarretsu, arrosa koloreko zetazko benda begietan.

Hainbeste hilabetetako elkarren gabeziaren ondoren, eta beste hainbeste urrundurik igaroko genituenez, asko geneukan esateko eta kontatzeko; nire gelan sartu ginen hirurok, eta P**-ren gelara aldatu ginen ondoren, eta haren anaiaren gelan amaitu genuen gero, ilaran zeuden haietatik azkenekoan. Akitzen aurrenekoa izan zen hura, eta bestearekin bakarrik gelditu nintzen luzaroan, San Frantzisko komentuko kanpaiek matutiak jo zituzten arte, egunsentia baino ordubete lehenago. Itzuli egin nintzen, orduan, lau bat orduz atsedean hartu ahal izateko, eta P**-ren gela zeharkatu nuen, oin-puntetan, seko lo baitzegoen. Isilik itxi nuen ezkutuko atea, eta gela urdineko atea ere ixteko bira emandakoan entzun nuen kolpe lehor eta gogor bat, bel-durgarria isiltasunean, ezkoztatutako zoladuraren gainean, gelaren erdian; eta segidan, zerbaiten firfira nabarmena, pirritan zihoana Erreginaren geletarantz... Aldi berean, minik eman ez zidan indar ikusezin batek, ukiezina bera, lurrera bota ninduen bortizki... Berehala zutitu nintzen, malgukia iduri, eta gelaren erdian izenik gabeko gauza horietako bat ikusi nuen... Argi-zutabe urdin baten gisakoa zen, lurretik sabairainokoa, eta zarataren arabera gutxitzen zihoan, izkinan itzali zen arte, mojararen irudiaren azpian. Honen begiak ireki eta itxi egiten ziren, era izugarrian; eta bere esku gordina, koadrotik kanpo aterata, gora eta behera mugitzen zen, ezin jakin niri deika edo aitaren egiten bere kasa... Beste izkinan, jauntxoaren begiek, distiratsu, suzko txingar gorriak ziruditen... Konortea galtzen ari nintzela sentitu nuen, eta bi pausotara neukan ohe-gainera erortzen utzi nion neure buruari: izerdi hotzak hartu zidan gorputz osoa, eta hondoratu egin nintzen pixkanaka-pixkanaka, estutasun eta espanturik gabe, lozorro astunaren baitan, lo sakonean sartu nintzen arte, komentuko kanpaiak entzuten, urrutian, San

Bartolomeren matutia-hotsak... higanoten sakailatzearen zantzu historikoa...

II

Esnatu nintzenez edo nire onera etorri, ez dakit eta bietako zein gertatu zen, ohe ondoan ikusi nituen etxeko jauna eta Debara eraman behar ninduen adiskidea, begi beldurti eta irribarretsuekin... Eguzkia erruz sartzen zen irekitako balkoi-tik barrena; brontzezko lanpara piztuta zegoen oraindik, mahai gainean, eta ohean etzanda nengoen ni, ikuskizun izugarriaren ondoren erori nintzen bezalaxe. Garaiz iritsia zen nire adiskidea, ezohikoa bazen ere, eta atarira azaltzen ez nintzaiola ikusita, etxeko jaunarekin batera, nire gelara sartzea erabaki zuten.

Bururatu zitzaidan lehen aitzakia zezeldu nien eta bidaiarako prestatzen hasi nintzen. Gela urdinetik igarotzean, begirada koldarra bota nion inguruari... Ez zegoen han beltza edo tristea zen ezer: leku guztietatik sartzen ziren eguzkia eta airea, eta goizeko haize leun hozkirriak puztu egiten zituen parpailadun errezelak, itsasontzi bateko oihalen pare. Jacob aitalehena lo zegoen, ezer gertatu ez balitz bezala; gora eta behera zebiltzan aingerutxoak, izu itxurarik gabe, eta Betiereko Jaunak, atzamarrara tinko, ez ikusiarena egiten zien agerkundeei eta mamuei. Mojaren erretratuari begiratu nion: hantxe zegoen maltzur hura, luma eskuan zuela, begi sakon geldiekin, hain geldi eta hain lasai, plater bat ere puskatu ez balu bezala bere bizitzako egun bakar batean. Haritzeko zoru leunduaren gainean ez zegoen inolako kolperen aztarnarik, ezta izkinan pirritan zihoala zirudien gorputz esferikorik ere, ezta zaratarekin batera itzali zen argiaren arrastorik ere.

Lau zaldiz tiratutako *breack* batean gindoazen, nire

adiskide *sportman* bikainak gidatzen zuela. Halako larria zen nire kezka, igarri egin baitzuen lagunak, eta zirrara sakona eragiten duten gertaerek kontatzeko premia sortzen dutenez, nire sekretua azaltzen hasi nintzaion... Adiskideak ikaratuta begiratu zidan, burua galdu ote nuen zalantzan, baina berehala algaraz hasi zen, gogotik eta biziki barre egin ere, muturtu eta lotsatu egin bainintzen. Zakar erantzun nion:

—Kontuz joan, putzutara eroriko gara eta!... Eta utzi neure otoitzak bakean erreztatzen.

Itsasoa inguratzen duen bide polit eta arriskutsutik gindoazen. Savona eta Bordighera arteko Italiako *corniche* hura gogorarazten zidan beti, apetatsua eta bitxia baitzen. Lagunaren barre algarak eten nituen, beraz, San Bartolomeren otoitzak erreztatzen, bezperako ezusteko jasangaitza baino lehen otoitz egindako haiexek, eta bestelako gorabeherarik gabe segitu zuen bidaiak. Ilunabarrean iritsi nintzen Bilbora, eta han jasotako berriek Bartzelonara posta-treanean joatera behartzen ninduteenez, biharamunean Mirandako espresera igoko nintzen. Deustuko Unibertsitatean hartu nuen ostatu, eta bazen han Lagundiko anaia bat, zahartua ordurako, euskaldun peto-petoa, ni hainbeste kezkatzen ninduen herri berberekoa; halatan otu zitzaidan, jauregiko aurrekarien eta antzinako biztanleen berri eman ziezadakeela, eta halabeharrak nahi izan zuen Anaia hura niri gosaria ekartzera etortzea hurrengo goizean. Galdetu nion, bada, ea urte asko zeramatzan herritik kanpo.

—Txikitxo nintzen, hau bezalako txikitxo —eskuan zeraman kobrezko txokolate-ontzia erakutsi zidan; txikia, benetan, gizonaren neurrirako, baina neurri prestua eta egokia txokolate-ontzia izateko.

—Eta berorrek inoiz ikusi izan al zuen jauregia?

—Mila bider joan izan nintzen, beste mutilekin batera, urmaelean harriak botatzera.

—Eta ez al zen han ezohiko ezer gertatzen?

Herriminez argitu zitzaion aurpegi biribila, eta arranditsu erantzun zidan:

—Ezohikoa?... Goiko gure Jaunaren urteetan guztietan, abuztuko Ama Birjinaren prozesioa... Zeinen ederra! Andrea oinez irteten zen kapa luzearekin, eta han-hemen dultzainak eta danbolinak, eta Jesus Haurtxoa prozesioan eramaten zuten Santa Klarako mojetara... Ondoren alkateek askaldu egiten zuten jauregian, eta haurrei opilak eta bizkotxoak botatzen zizkiguten... Bai ederra gero!

Orduan konturatu nintzen etxe hartako jaun-andreak Santa Klara komentuko sortzaileak eta laguntzaileak zirela, eta abuztuaren 15ean irteten zen Ama Birjinaren prozesioa zuzentzen zutela. Azken jabea, nire adiskidearen aurretikoa, duela urte asko hil zen, adin handiarekin, eta hartaz ari zen Anaia jatorra. Esan nion:

—Ez natzaio berorri horretaz ari... Jauregian ezohikoak gertatzen ote ziren ari naiz, agerkundeak edo mamuak...

—Agerkundeak?... Mamuak?... Iratxoak izango ziren.

—Iratxoak al zeuden ba?

Pinaburuaren antzera elkartu zituen eskuin eskuko atzamarrak, eta saguei edo zimitzei buruz ari balitz bezala erantzun zuen:

—Gela ilunean mordoia...

—Gela ilunean? Gela urdinean esan nahiko du berorrek.

Begiak itxi zituen une batez, pentsatzen bezala, eta serio erantzun zidan:

—Urdina?... Berdin dio. Gaeuz iluna izango zen.

—Eta zer iratxoz ari da ba berori?

—Hantxe bertan hil zen juduarenaz, gorputz eta arima demonioek eramane zuten harenaz, isatsa ateak harrapatuta

galdu eta gero.

Barrez hasi nintzen, eutsi ezinik, eta Anaiak, txorakeriatan ari zela jakitun, nahiz eta bazekien esaten zuenak eragin sakona zuela, erdi serio erdi irribarretsu, eskatu zidan:

—Ez barrerik egin, jaun agurgarri horrek... Demonioek eraman zuten judua... Markesak, judua askatze aldera, atea itxi zuen; baina, nahi gabe, juduaren isatsa harrapatu zuen... Demonioek tira eta tira egiten zuten, eta isatsa eten eta barrura erori zen... Orduan, isatsa sugearen modura zebilela, gelako zulora lerratu zen... Markesak, gaixoak!, dena ikusi zuen, zurrun; eta izuaren izuz, Beaten komentua sortu zuen, han, baratzean... Gauetan judua itzuli egiten da bere isatsaren bila, eta demonioek defendatu egiten dute, borrokan, oihuka eta kolpeka, eta horixe da dena...

—Baina zertara etorri zen judu hura?

—Elizako bitxiak lapurtzera... Eta kristaua zela esanez engainatu zuen Markes jauna, eta gela hartako izkina batean ezkutatu zituen bitxiak, eta horregatik egiten zuen korrika isatsak, zuloan sartzearren, lapurtutakoarekin batera... Juduak diruzaleak baitira... —bukatu zuen Anaiak, dena dakienaren dudarik gabe.

Jakin-min bizi-bizia piztu zidan; korrika egiten zuen isats hark eta zulo berean ezkutatutako altxorrak, neuk entzundako soinu harekin eta ikusitako argiarekin antz erabatekoa zutela iruditzen zitzaidan, biak ikusi baintuen gela misteriotso hartako izkina berera irristatzen eta itzaltzen. Herri xehean aurki litezkeen akatsez eta zentzugabekeriez betetako tradizio horien arrastoa sumatu nuen, antzinako objektu artistikoen aztarnategietan topatzen ziren gisan, herdoil eta lokatzez estalita; eta beste garaietako lan artistikoak garbi agertzen diren moduan antigoalekoen saltzaileen begietara, bere akats eta zentzugabekerietatik at, aspaldiko gertaerak daude, egiaztatu-

takoak, historiarentzat interesgarriak, batzuetan. Argitze lan hori egitea erabaki nuen juduaren buztanarekin, jakin-mina piztu baitzitzaidan nik ikusitako bitxikeria zoragarriaren ondorioz.

Tamalez, Anaia jatorrak ezin zuenez hari buruzko berri gehiago eman, gertakari harrigarriaren dataz galdetu nion. Eta erantzun zidan:

—Duela milaka urte.

Istorio hura ezaguna ote zen galdetu nion. Eta eskua-
ren eta besoaren mugimendu zabal batekin, urbi et orbi be-
deinkazioa eman behar balu bezala, esan zidan:

—Jaio gabeek ere ezagutzen dute...

Gainerako galderen aurrean, bizkarrari eragiten zion edo, noizean behin, txokolate-ontzia erakutsiz erantzuten zuen:

—Hau bezalakoa nintzen ni orduan, txiki-txikia.

Galdetu nion, istorio haren berri emango zidan bes-
terik ba ote zegoen herrian. Eta une batez pentsatu ondoren,
arrakasta usteko esan zuen:

—Aita L**, bai!.. Jauregiko administratzailea zuen
anaia: aita administratzailea, aitona administratzailea, den-de-
nak administratzaileak, Adan arte; eta jauregian jaioak denak.

Oso aproposa iruditu zitzaidan azalpen hura: Aita L**
pertsonea guztiz serioa eta zuhurra zen, duela urte askotatik
hona, eta Anaia zintzoak aipatutako Adam arteko administra-
rien genealogiako kidea izanik, litekeena zen jauregiari buruzko
berriak jakitea. Bestalde, Loiolan zegoen Aita hori, eta erraza
zen, Bartzelonatik bueltan, hura bisitatzea, Gipuzkoara itzultze-
ko premia izango banu behintzat, uste nuen moduan.

Honela gertatu zen: hamabost egun geroago Loiolan
nintzen Bartzelonatik bueltan, Aita L**-rekin buruz buru,
kazetari lotsagabeenaren pareko galdeketa egiten. Ez nion
berehala nire abenturaren berri eman, nire adiskide *sportman*
haren barrengatik zentzatu, eta jauregiko iratxoez galdetu

nion, xaloki, Deustuko Anaiari entzundakoak hizpide hartuta. Arreta handiz aditzen zidan Aita L** -k, eta, juduaren isatsaren istorio xelebrea eta elizako bitxien lapurretarena entzutean, burua mugitu zuen irribarretsu.

—E** Anaiak —esan zidan berezkoa zuen ahots apalarekin— bi gauza bestelako nahasten ditu... Ez dakit aurreko mendean edo honetan, Z** -en, hain zuen, aparteko lapurreta bat egin zuten: atzerritar bat izan zen egilea, eta litekeena da judua izatea, baina nik ez dakit hala zen. Urkatu egin zuten sakrilegotzat jota, eta zirrara handia sortu zuen herrian. Iru-ditzen zait, errudun gaixoak ez zuela isatsik izango, eta izan balu, ez zuela mundu honetan utziko, beste munduan behar izango zuen-eta... Baina horiek guztiek ez daukate zerikusirik jauregiko iratxoekin. Urteen poderioz, belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho hedatzen direnean kontakizunak, herriak nahastu eta okertu egiten ditu ezohiko gertakariak, eta istorio xume batetik ehunzango bat ateratzen ahal du... Duela hiru bat mende, ez dakit ziur zenbat, zaldun bat iritsi zen jauregira, ez dakit zergatik edo zertara, higanot heretiko bat...

Urduritu egin nintzen, pixka bat, *higanot* hitza entzutean, haien sarraskiaren urteurrenean gertatu baitzitzaidan niri abentura harrigarri hura. Nire kezka ohartu gabe, berriketan segitu zuen Aitak:

—Gela urdinean sartu baldin bazuten, ez zen edonor izango, Jauregiko gela onenetakoa baitzen... Heriotzaren gaitzaz gaixotu zen zalduna, baina alferrik izan ziren etxeko jaun-andreek, herriko alkateak, eta inguruko elizgizon ospetsuek benetako federa itzultzeko egin zituzten ahaleginak... Zoritarreko heretikoa bere hutsegiteen artean hil zen, etsita eta biraoka, eta kondairak dio demonioek infernura eraman zituztela haren gorpua eta arima, inork herrian ez baitzuen ez ikusi, ezta haren hezurak nora joan ziren jakin ere. Harrezkero,

soinu izuak entzuten dira gela urdinean, eta herriak uste du higanotaren arima madarikatuarenak direla, hil zen toki berean bere zoritxarraz nahigabetzen... Horregatik, beti itxita ezagutu dut nik gela hori, altzariak gordetzeko bakarrik, nahiz eta leku benetan atseginean egon, eta izan eroso eta ederra. Uste dut, 1866. urtera arte ez zela sekula atondu, orduan lehen aldiz etorri baitzen jauregira Isabel erregina sendi osoarekin, eta gela handia izan arren, txikia suertatu zen... Nolanahi dela, horretaz ez nago ziur, garai hartan Z***-tik, Espainiatik eta Europatik oso urrun bainenbilen ni: Filipina basatietako misioetara bidali ninduten...

Gela urdinean entzuten ziren soinuak nolakoak ziren galdetu nion. Eta ziurtasunez erantzun zidan:

—Sabaitik oholtza gainera billarreko bola bat eroriko balitz bezalakoa, hala diote; eta ondoren gelako izkina batera pirritan joango balitz bezala, tradizioaren arabera, higanotaren ohea egon zen tokiraino, infernura eramatearren demonioek haren gorputza atera zuten lekuraino...

Beldurtu egin nintzen, oroitzapenezko izu-ikaraz, ezinezkoa baitzen neuk entzundako soinuaren deskribapen zehatzagorik egitea. Baina Aita L** nitaz trufatu ez zedin, irribarrez galdetu nion:

—Eta berorrek noizbait entzun al zituen soinu horiek?

—Nik ez dut inoiz ez ezer entzun, ez ezer ikusi—erantzun zidan oso serio—, baina gogoan dut horrekin erlazioa zuen zer-bait, eta nik neuk ikusitakoa, umea nintzela, hogeita hamar-garren urte pasatxoan. Garai hartan nire gurasoak jauregiaren behealdean zegoen administratzailearen gelan bizi ziren, ataritik sartu eta eskuinera. Neguan, ordea, etxejabeak Madrilen zeudenean, solairu nagusiko geletara igotzen ginen, ezkerreko eraikin berrira (*P** eta X** anaiak erabiltzen zituztenak zirela ulertu nuen*). Gela horien eta gela urdinaren artean beste bat

dago, handia (*horretan egon nintzen ni*); ezkutuko pasabidea dauka bi hormen artean, eta eskailera printzipalera du irteera (*horretaz ez nintzen ohartu ni orduan*). Gau batean, oheratu baino lehen, arrosario santua errezatzen ari ginen amarekin. Aita ohean zen... Atea jo zuten aldaba-kolpe irmoz, eta ama larritu egin zen, haiek ez zirela-eta orduak. Hamabost edo hamasei urte izango zituen anaia zaharrena bidali zuen atetik hurbilen zegoen balkoira, nor zen begiratzearren. Anaiak ganderailua hartu zuen eskuan —ikusten ari naizela iruditzen zait!— eta bidea mozteagatik edo gainerako ateak itxita zeudelako, iratxoek gelatik hurbil dagoen pasagune ezkututik barrena sartu zen... Handik gutxira oihu beldurgarriak entzun genituen: amak korrika egin zuen, baita guk ere berari helduta, eta pasabidetik sartu ginen gela handira... Hantxe zegoen anaia, ganderailua piztuta, itxuragabetuta, beldurrak airean... Gela urdineko atea irekita zegoen, zulo beltz itzel bat bezala, eta barrua ilun ikusten zen otso-ahoaren antzeko... Gure aita erori egin zen ohetik, eta atzetik jarraitu zitzaigun manta batean bilduta. Gela urdineko atera joan eta oihu egin zuen: “Nork arraio ireki du hau?”. Baina alferrik ibili zen indarka atea ixteko, kisketarik kendu gabe eta giltza sarrailan sartu gabe irekia izan baitzen. Txikienak beldur-beldur eginda oheratu gintuzten, eta ez biharamunean, ez inoiz, ez nion inori kontu hari buruz hitz egiten gehiago entzun, ez gurasoei, goian beude, ez anaiari, duela urte asko Ameriketara joana.

III

Kitzikatu egin ninduten albiste haiek, eta biziagotu egin zitzaidan ikerketan jarraitzeko asmoa. Erdipurdiko egiaztapen baten bidez baneukan gela urdinaren benetako

kondairaren berri, judutarren isatsen kontuetatik eta bitxien lapurretatik eta herriaren zakarkeriak nahiz nabarmenkeriak apaindutako gainerako purtzilkeriek osatzen zuten herdoiletik garbi. Kondaira hura benetako gertakari historiko batean oinarrituta ote zegoen jakitea besterik ez zitzaidan falta, eta batez ere handiena, potoloena, izugarriena falta zitzaidan, pentsatze hutsarekin biloak laztu egiten zizkidan baina sekula uko egin ezingo niokeen horixe: gela urdinean gertatzen zena berriro egiaztatzea eta fenomeno haien iturburuak ezagutzea, izan naturalak, izan beste mundukoak.

Lehenengoak lagun ziezadakeen azkenekorantz, eta irrika zentzuzkoz hasi nintzen artxibategiak arakatzen, larrukiak deszifratzen, idazki zaharkituak interpretatzen, eta begiak nekatu nituen antzinako zuhaitz genealogikoak jarraitzen eta bateratzen. Nire ikerketen ondorioz jakin nuen, hasteko, ez nintzela ni arrasto hari segitu zion lehendabizikoa: Amparoko Markesa aurretik izan nuen hogeita hamar urte pasa ari nago, eta benetako kondairari buruzko ipuin polit bat idatzi zuen 1863ko irailaren 21eko *La Époque* egunkarian. Amparoko Markesaren adeitasunari esker baliatu nintzen hark aurrez erabilitako datu guztiez, eta probetxuzkoak izan zitzaizkidan zabalagoak eta ziurragoak ziren beste batzuk bilatzeko. Oinarri horren gainean, izenen eta daten, gezurren eta egien nahaspila handi hura menderatzeko lan nekagarriari jarraitu nintzaion, eta poliki-poliki hasi zen egia historikoa agertzen, garbi, soil, biluzi, frogatuta: baso malkartsu baten kimaketak eta garbiketak ehun urteko enborra duen zuhaitz bakoitza eta nork bere sustraiak egonkortzen eta botatzen dituen tokia ikusten uzten duten modura, baliorik gabeko orbeletik garbi.

Juduaren isatsaren eta lapurtutako bitxien istorioa izan zen nire artezketa-lanaren ondorioz moztutako lehen adarra, Aita L**^{-k} susmatu bezalaxe baieztatu baitziren haren oi-

narrria eta zimendua... Ustezko erromes bat iritsi zen Lurrealde Santutik Z**-era 1586. urtean, baina ez zen judua eta ez zuen buztanik: Genoakoa zen, eta izen-deituraz Bartolome Casano. Abaroa eskatu zuen jauregian, antzinako ohiturari jarraiki, eta eman egin zion jaunak eskuzabal, horrelakoa baitzen On Migel Zarauzkoa. Baina gau batean elizan barneratu zen ustezko erromes hori, eta ostu egin zituen hango bitxi eder eta ugariak, aspalditik ikuskatuak zituenak. Zaku batean sartu eta ostatua hartutako jauregiko gelaren izkina batean ezkutatu zituen, zuhurtziaz suposatuz haien bila ez zela inor agertuko etxe hain noble eta kristaura. Alabaina, konturatu egin ziren lapurretaz, atzeman egin zuten ebaslea, eta hasiera batean On Migelek bere jauregian hartutakoa babestu arren, donaste ikaragarria aitorturik eraman zuten preso.

Donauslea izategatik urkatu zuten Casano, elizaren eta jauregiaren eta Sancturu ontziolaren artean eta horren alde batean hedatzen zen zelaigunean. Hori guztia higanota hil eta handik hamalau urtera gertatu zen, eta denbora horretan guztian soinuak eta mamuak sentitzen ziren. Bi gertaera horien arteko gertutasunak eta herrian sortutako zirrarak kontuen okertzea eta nahastea ekarri zuten ziur aski, eta isatsa ere altxorraren zulo berean ezkutatu zela deliberatu zuen herriak, eta hildakoaren gelako izkina berean itzaltzen ziren soinua eta argia gorpuztu zituen, neuk ikusita bezalaxe. Den-denak, beraz, kontu burugabeenak ere, zentzuren bat bazeukan, eta E** Anaiak aipatutako moja-komentu hura ere, Zarauzko jaunak beldurraren beldurrez sortutakoa, hogeitun urte geroago fundatu zuen, gaur egun herrira begira dagoen parkearen zatian. Hirutasun Santuaren kaperatxoa da eliz obra horren azken osagaia, moja haien deiturarekin: *Trinitarias descalzas*.

Gisa berean, higanot zaldunaren benetako istorioa azaltzen eta garatzen joan zen gerora, nobelesko samarra, izan

ere. Z** etxeko jaun-andreak 1572. urtean ziren: On Pedro Zarauzkoa, Gipuzkoako ahaide nagusia eta 4.000 gizonen koronela Carlos V.a enperadorearen agindupean, eta haren andrea Maria Hernanikoa, herri hartako noble-leinukoa. Gerra asko egin zuen gaztaroan, aita On Juanen pare. Enperadorea lagundu zuen honek ia kanpaina guztietan, eta oso zaharra zela erretiratu zen jauregira, gaztaroko okerrak obra onekin zuzendu nahian; eta bitartekaria izan zen familiakoen artean, influentzia handikoa arrotzen artean, eta mundu guztiak oso errespetatua, Hondarribitik hasi eta Ebrora arte. Alaba bat zuen On Pedro Zarauzkoak, aitaren liluragarri; eta semea bat, itxaropen: Migel izena zuen honek, eta hark Mariana.

Hala bada, etxeko zorionak Zarauzko jauregi noblearen gainean zabaltzen zituen hegoak, eta jaun-andre gailen haiek bozkario gozotan ziren seme-alabekin. On Migel ezkontza prestatzen ari zen Frantziska Maellakoarekin; eta Mariana andrea 1572. urtean bertan esposatu zen Francis Boucker-Barthon zaldun ingelesarekin, George Boucker-Barthonen ondorengo zuzena, Rikardo Lehoi Bihotzen laguntzailea izana 1180ko Gurutzadan. Familia katolikoa eta indartsua zen hori, 1534an Ingalaterratik erbesteratu egin behar izana, Henrike VIII.aren jazarpenaren kariatara, eta Zumaian erosi zuten Izarra etxea, errege-zedulari esker. Hortaz, berria zen ezkontzarako ogia, eta hurrengo oratzen ari ziren, Kantauri itsasoan ohikoak ziren ekaitz ikaragarri haietako bat etorri zenean, negu bukaeran, bailarako lasaitasuna atsekabez estaltzera. Halako amorrus eta bulkadaz haserretu zen itsasoa, ezen Humailari harkaitza zeharo tapatu baitzuen, eta han jaiotakoek eta, itsaso haietan, ordutik hona, gizakiaren oroimenak gogoratzen ez duen tamainako olatu batek jauregiaren kontra talka egin baitzuen, erroetatik ateratzeko mehatxua eginez; eta, bi esklusetan bezala, olatua bitan zatitu zen, garai hartan, alde bana-

tan zeuden bi ontzioletatik barrena, eta bidean harrapatutako txalupak eta hondakinek elizaren dorrearen kontra jo zuten, ia kanpaietaraino. Herriko hamazazpi itsasgizon hil zituen katastrofeak, ur haietan maiz azaltzen ziren baleak harrapatzen jarduten zuten Gipuzkoako arrantzale adoretsuen gremiokoak denak, bakailaotan Ternuaraino iristen zirenak.

Pixkanaka-pixkanaka hondartzara bota zituen itsasoak bere haserrearen biktimak eta hondakinak, eta horien artean agertu zen txikitutako txalupa bat, mirariz onik atera zena, Frantziako ez dakit zein portutatik abiatu eta Ingalaterrarantz zihoan Genoako galeoi baten osagai galdu bakarra. Itsasoan desbideratutako bost pertsona dohakabe zetozen ontzian, gosez eta nekez erdi hilda, eta On Pedro Zarauzkoak sortutako eta honen emazte Maria Hernanikoaren eta alaba Marinaren karitate amaiezinaz zaindutako ospitale-etxera eramán zituzten. Hilzorian zegoela ematen zuen malerus haietako batek, eta inork ulertzen ez zuen hizkuntza arrotzez mintzo zen. Mariana andreari iruditu zitzaion Boucker-Barthon senarraren hizkuntza zela. Koitadu hura bisitatzerá joan zenean bihotz oneko senarra, konturatu zen gazte gaixoa herrikidea zuela, nobleziako zaldun ingelesa. Bere izena ez da gaur eguneraino iritsi, ezkutatua izan baitzen zuhurtzia finez. Susma daiteke, hala eta guztiz ere, Ingalaterrako enbaxadore Sir Amyas Paulet puritano zorrotzaren ahaidea edo lagun mina zela, honekin ibili eta bizi izan zelako Frantzian.

Naufragoaren zoritxarraz eta nobleziaz jakin zuenean On Pedro Zarauzkoak, jauregira eramán zezatela agindu zuen, garai hartako espainiarren karitate eta gizalege arau, eta gela urdinean ostatu eman zion ederki, familiaren zaintzarik maiteenekin. Orduan kontatu zuen zaldunak bere ezbeharrá: Parisera joana zela bi urte lehenago Sir Amyas Paulet enbaxadorearekin; Frantziako gortean ezpatakada eman ziotela bularrean,

desafio batean; zauria sendatzeko asmoz Pabera aldatu zela, Henrike errege Nafarroakoarekin; eta, bere aberrira itzulian zihoala, ekaitz ikaragarriak harrapatu eta golkoan galeoia irauli zuenean.

